

Astialdia, etengabeko mugimendua!

- Bizkaiko Foru Aldundiak eta EGK-k koordinatzen duen Bizkaiko Astialdi Foroak Astialdiko talde boluntarioek egiten dituzten udako ekintzak aurkeztu dituzte
- Gazte boluntarioek urtean zehar egiten duten ekimenen garrantzia goraipatu nahi da, hau baita astialdiaren bermea eta funtsa

Bilbo, 2018ko ekainaren 20a. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) presidentek, Maialen Olabek, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusiak, Andoni Iturbek, kontseiluaren barruan dagoen Bizkaiko Astialdi Foroaren udako ekintzen aurkezpena egin dute.

Olabek azaldu duenez, Astialdi Foroa “**EAEko hainbat elkarte eta eragileren elkarlanerako gunea da**” eta lurralde bakoitzean talde autonomo bezala funtzionatzen du. EGK-ko presidentek gehitu du **lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren “garapena bultzatzea” duela helburu**, elkarren arteko koordinazio-bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta.

Eragileek diotenez “urtean zehar egiten den lanari esker, udako eskaintza sortzen da”. Hauek, BFAren laguntzarekin eta “boluntarioen esfortzua eta konpromisoarekin”, aukera zabala eta anitza ematen dela diote. Horrela, udako ekintzak urtean zehar egindako lanaren isla bilakatzen dira.

Aurten, Bizkaiko Astialdi Foroa osatzen duten **14 elkartek, 58 opor-jarduera** antolatu dituzte (ekainaren 23tik abuztura arte), guztira **3000 plaza** inguru eskainiko dutenak. Horrela, ia 2700 familiek udaleku, topaketa eta bestelako ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute. Hau guztia, 400 boluntarioei esker jarriko da abian. Hala ere, Astialdi Foroak datu hauek errealitatearen parte bat baino ez direla esan du, “Bizkaiko elkartegintza oso aberatsa” dela gogoratuz.

Astialdiak familiei “kontzilio bermatzeko aukera” eskaintzen die, “aniztasunari erantzuteaz gain”. Gainera, parte hartzeko aukera “edozein ume eta gazteentzako zabalik dago” eta giza inklusioa bultzatzen da.

Astialdi Forotik “ume, familia eta begiraleentzako esperientzia eraldatzailea” azpimarratu nahi da. Era berean, “gizartea hobetzeko” lanabes gisa ere balio duela adierazten da. Izan ere, balioz beteriko hezkuntzak, esperientzia eraldatzailea izatea ahalbidetzen du.

Eskaintzaren abiapuntua “baloreetan oinarritutako hezkuntza” da eta “errespetua, tolerantzia, elkarlana eta enpatia” bezalako baloreak ikuspegi ludiko-didaktiko batetik jorratzen ditu.

Balioz beteriko astialdia

Azkenik, Olanek nabarmendu du “urtean zehar lan egiten duten hezitzaileen ahaleginak funtsezkoak” direla udako ekintzak aurrera eramateko. Hezitzaile boluntarioek “konpromisoaz, gaitasunarekin eta dedikazioz” bideratzen baitituzte ekintzak eta “kalitatezko astialdia” sustatu.

Aipaturiko ekintza hauek honako elkarteei esker izan dira posible: Aisi-hezi fundazioa, Aisiola eskola, Amarauna sarea, Bosko Taldea Euskadi, EDE fundazioa, Euskal Herriko Eskautak, Gaztetxoen Koordinakundea, Gaztetxo Eskola, Gurutze gorria, Itaka Fundazioa, Kiribil Sarea, Kurkudi eskola, Urtxintxa.